FACULTAD DE CIENCIAS JURÍDICAS

upna Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

ZIENTZIA JURIDIKOEN FAKULTATEA

GRADU AMAIERAKO LANA / TRABAJO FIN DE GRADO

LAN ESKUBIDEAK BIGARREN ERREPUBLIKAN: CNT-AREN ALDARRIKAPENAK NAFARROAN

Maite Jaurena Etulain

ZUZENDARIA / DIRECTOR

Roldán Jimeno Aranguren

Pamplona / Iruñea

2014ko ekainaren 6a

Laburpena: 1933. urtean Espainiar Estatuan orokorrean eta Nafarroan bereziki zegoen giro politiko nahasian, Iruñean CNTko hiru militante atxilotu zituzten. Aurretiazko eginbidea Luis Elío epaileak eraman zituen, eta hiru gizon gazte hauek aske utzi zituen. Iruñeko Auzitegiko artxiboan gordetzen den dokumentazioa interesgarria da, hiru gazte hauei konfiskatutako dokumentazioa gordetzen baita, horien artean, Dionisio Ríosek zuen CNTaren Langabetuen Batzordearen txosten interesgarri bat. 1933ko ekaineko langabeziari aurre egiteko Batzorde honek hartutako neurriak eta eginiko kudeaketak banan-banan izendatzen dira. Agiri honen helburua Lanaren Konfederazio Nazionalak Batzorde honi Greba Orokor bat antolatzen laguntzea zen, Iruñeko Udaletxeak egun haietan zituen arazo ekonomikoen ondorioz, langileek jasan behar zuten errepresioari aurre egiteko. Lan honetan Nafarroak garai hartan bizi zuen egoera eta bereziki dokumentu honetan agertzen dena azalduko da.

Giltza hitzak: Bigarren Errepublika. Nafarroa. Lan eskubideak. Sindikalismoa. CNT.

AURKIBIDEA

Giltza hitzak: Bigarren Errepublika. Nafarroa. Lan eskubideak. Sindikalismoa. CNT.. 2

AURKIBIDEA 3

SARRERA 4

I. TESTUINGURUA: CNT BIGARREN ERREPUBLIKAN 4

II. CNT-AREN ALDARRIKAPENAK NAFARROAN, ARGITARAGABEKO TESTU BATZUEN HARIRA 6

1. 1933ko gertaerak 6

2. Aurretiazko eginbideak (*diligencias previas*) 10

2.1. 60/1933 aurretiazko eginbidea 10

2.2. 61/1933 aurretiazko eginbidea 12

2.3. 65/1933 aurretiazko eginbidea 13

3. CNTaren Langabetuen Batzordearen txostena 14

III. ONDORIOA 26

IV. BIBLIOGRAFIA 28

V. ATXIKITUTAKO DOKUMENTUAK 29

1. Agiria 29

SARRERA

Lan honen helburua 1933. urtean Nafarroako CNTaren inguruko ekintzak eta lan-aldarrikapenak ezagutzea da, orain arte argitara gabeko dokumentu batzuen bitartez. 1933. urtean Espainiar Estatuan orokorrean eta Nafarroan bereziki zegoen giro politiko nahasian, Iruñean CNTko hiru militante atxilotu zituzten. Aurretiazko eginbideak Luis Elío epaileak eraman zituen, eta hiru gizon gazte hauek aske utzi zituen. Iruñeko Auzitegiko artxiboan gordetzen den dokumentazioa interesgarria da, hiru gazte hauei konfiskatutako dokumentazioa gordetzen baita, horien artean, Dionisio Riosek zuen CNTaren Langabetuen Batzordearen txosten interesgarri bat. 1933ko ekaineko langabeziari aurre egiteko Batzorde honek hartutako neurriak eta eginiko kudeaketak banan-banan izendatzen dira. Agiri honen helburua Lanaren Konfederazio Nazionalak Batzorde honi Greba Orokor bat antolatzen laguntzea zen, Iruñeko Udaletxeak egun haietan zituen arazo ekonomikoen ondorioz, langileek jasan behar zuten errepresioari aurre egiteko. Lan honetan Nafarroak garai hartan bizi zuen egoera eta bereziki dokumentu honetan agertzen dena azalduko da. Bere mamian sartu baino lehenago, CNTaren izaera labur-labur azalduko dugu.

I. TESTUINGURUA: CNT BIGARREN ERREPUBLIKAN

CNT, Lanaren Konfederakunde Nazionala (Confederación Nacional de Trabajo), 1910ean Bartzelonan sortutako sindikatu anarkosindikalista da, klase eta sindikatu anarkisten konfederazioa. Ordundik, edozein lanbide, ideal politiko eta sinesmen erlijiosoko langileak elkartzen dira. CNT langile klase guztiarendako borroka tresna da. Sindikatu hau anarkismoaren oinarrizko printzipioekin zuzentzen da: federalismoa, asanblearismoa, autogestioa, zuzeneko ekintza eta solidaritate eta elkarrekiko laguntza. Konfederazioak gizartearen aldaketa erradikala, ordaindutako lanaren abolizioa eta iraultza soziala nahi ditu. Horregatik bere helburua Komunismo Libertarioa da, askatasuna eta berdintasun funtsezko balio dituen sistema sozio-ekonomikoa. Beren ustez denak ez du balio, emaitzek ez dituzte bitartekariak justifikatzen.

Oso ezaguna da CNTaren historia Bigarren Errepublikan[1]. Nafarroan ere, bere ibilbidea aski ezaguna da Juan Jesús Virto[2] eta Emilio Majueloren[3] lanei esker, besteak beste.

Primo de Riveraren Diktaduran urte batzuk ixilean izan eta gero, 1931. urtean Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean CNT berpiztu eta berriz ere eratu zen, baina laister iritsi ziren Sindikatu Bakarraren lokalen klausurak eta akta publikoen debekuak. Garai honetan, anarkisten kontrako neurriak gogortu zirelako eta beraien gaineko zaintza eta kontrol poliziala areagotzearen ondorioz, CNT-k errepresio ugari jasan behar izan zituen. Horren adibide dugu 1932an Iruñeko lokalaren itxiera eta hainbat militanteen atxiloketa.

Aldi berean talde hauek hainbat ekintza aurrera eraman zituzten, hala nola: Iruña ondoko bolborategi baten lapurketa, komunismo libertarioaren aldarrikapena Mendabian 1932ko otsailean, Gerra Zibilak eginiko zenbait anarkisten atxiloketa Lizarraldean, anarkistek Eguberri egunean Montejurran ospatutako bilera Casas Viejas-en gertatutakoaz solasteko... Urte honetan, 1932an, Allon, Milagron, Cascanten, Castejonen, Mirandan eta Villafrancan Sindikatu Bakarraren Atalak sortzen dira. Urte honen amaierarako 1.000 afiliatu zituen CNT-k Nafarroan. Gogoratu beharra dago Nafarroan, Bigarren Errepublikan zegoen industrializazio eskasagatik, CNT nekazal munduari lotua zegoela.

1932a urte korapilatsua izan zen bitartean, 1933ari buruz ez ziren CNTaren inguruko berri aunitz iritsi, behintzat Nafarroari dagokionez. Garrantzitsuena abenduan

---

[1] Lan hauek esanguratsuenak ditu: PEIRATS, J., *Los anarquistas en la crisis política española*, Ruedo ibérico, Paris, 1971, 3 ale; GARCÍA OLIVER, J., *El eco de los pasos*, Ruedo ibérico, Paris, 1978; CASANOVA, J., *De la calle al frente. El anarcosindicalismo en España (1931-1939)*, Crítica, Barcelona, 1997. VEGA, E., *Entre revolució i reforma*, Pagés editors, Lleida, 2004.

[2] VIRTO IBÁÑEZ, J. J., "La C.N.T. en Navarra", *Príncipe de Viana*, XLVI (1985), 837-859. orr.; Arbeloa Muru, V. M. eta VIRTO IBÁÑEZ, J. J., "La cuestión agraria navarra (1900-1936)", *Príncipe de Viana*, XLV (1984), 117-127 eta 617-651, eta XLVI (1985), 247-294. orr.

[3] MAJUELO GIL, E., *Luchas de clases en Navarra (1931-1936)*, Príncipe de Viana, Pamplona, 1989; *La II República en Navarra. Conflictividad agraria en la Ribera Tudelana (1931-1933)*, Pamiela, Pamplona, 1986; "Conflictividad social en Navarra durante la II República", *Congreso de Historia de Euskal-Herria (Bilbao, 30 de noviembre a 4 de diciembre de 1987)*, Txertoa, Donostia, 1988, VI. alea, 145-161. orr.

eman zen altxamendua izan zen. Lodosan telegrafo eta telefono lineak moztu zituzten eta onodorioz Guardia Zibila herrian bildu zen; desordena publikoak eman ziren Tuteran eta Villafrancan, non gizon bat hil zen indar polizialaren tiro baten ondorioz. Iruñean lehergailuak eta material propagandistiko ugari aurkitu ziren, hainbat erradikal atxilotu zituzten... Baina egun hauetako gertakari garrantzitsuena tentsio altuko poste batean ezarri zuten lehergailua izan zen, hain zuzen ere geltokiko auzoko Iparraldeko trenbidean. Honen asmoa Bartzelona-Irun elkartzen zuen trena errailetatik irtearaztea zen. Ondorioz Gobernuak zentro anarkistak itxi zituen 1934ko ekaina arte.

Biurteko eskuindarrean (1934-1935), UGT nagusitu zen CNT-ren gainetik. 1936ko otsaileko hauteskundeetan CNT-k aurreko urteetan galdutako ekintza eta hitz askatasuna lortu zuen. Eskaini zituen mitinekin militanteak berriro motibatzea lortu zuen eta anarkistek, errepublikar ezkertiarrek eta UGT-koek iraultzaren ametsa hurbil ikusten zuten.

II. CNT-AREN ALDARRIKAPENAK NAFARROAN, ARGITARAGABEKO TESTU BATZUEN HARIRA

1. 1933ko gertaerak

1933. urtea gatazkaz betetako urtea izan zen, batez ere lan arloari dagokionez. Espainiar Estatuan, 1930ean 402 greba erregistratu ziren bitartean, 1933an 1.127 egon ziren. Gainera, grebalarien zenbatekoa lau aldiz haunditu zen eta galdutako lanegunak hamabi milloi urteko izatera iritsi ziren. Hainbat arrazoia eman ditzazkegu egoera honen zergatiak jakiteko: Estatuaren atzerapen ekonomikoa, CNTk kontziliazio neurri ofizialak erabilitzeari uko egitea eta greba politikoak deitzeko zuen joera; Epaimahai Mistoen erabakiak langileentzat onuragarriak zirenean, eNpresaburuen erresistentzia hauek onartzeko; UGTren haserrea erreformen moteltasunaren aurrean...

Urteko lehenengo egunean berean, urtarrilaren 1ean, Felguerako (Asturias) CNT-ko egoitzan indar handiko 59 lehergailu lehertu ziren eta hurrengo egunean Bartzelonan Guardia Zibilak 187 lehergailu aurkitu zituen. Bartzelonako CNT-ko ezkutuko fabriketatik 10.000 bat lehergailu atera zirela kalkulatzen da, Katalunia, Aragoi eta Valentzian barna banatzeko. Sevillan komertzioak erasotu zituzten, Real de

la Jaran elizari su eman zioten eta Avilan Udaletxea hartu zuten komunismo libertarioa goraipatuz.

Aste bat beranduago, urtarrilaren 8an, Madrilen Carabanchel, Montaña eta María Cristina kuartelak hartzen saiatu ziren, Guardia Zibilarekin tiroketetan arituz. Bartzelonan berriz, eraso ekintzei hasiera eman zieten Sindikatu Bakarraren egoitzaren inguruan. Atarazanas kuartelaren aurrean borrokaldi bat eman zen, non guardia bat hilik eta kabo bat zauritua suertatu ziren. Tiroketa Poliziaren bulego nagusiraino zabaldu eta hiru lehergailu lehertu ziren bertan. Mugimendua zuzentzen zuten anarkistek pistola, metrailadore eta eskuko lehergailuekin erasotu zuten.

Iraultza penintsula osotik zabaldu zen, baina gertakizun garrantzitsuena urtarrilaren 10 eta 12 artean Cadizeko probintziako Casas Viejas herrixkan eman zen sarraskia izan zen. Hiru mila bat biztanleko herri honetako CNTra afiliatutako jornalari talde batek Guardia Zibilaren kuartela inguratu eta tiroketa bat eta gero sarjentua eta guardia bat larri zauriturik irten ziren. Ondorioz Anarte Sarjentuak zuzendutako guardia zibil talde bat bertaratu, herria hartu eta tiroketaren arduradunak atxilotzen hasi ziren. Herritar aunitzek herritik ihes egin zuten beldurturik. Atxilotuetako batek, Francisco Cruz Gutiérrez, “Seisdedos” izengoitiarekin ezagutua eta noizean behin CNT-aren egoitzara agertzen zena, bere bi semeak eta suhia salatu zituen. Hauek “Seisdedos”-en etxean izkutaturik zeuden. Polizia etxeko atea irekitzen saiatu zenean, barnetik tiroka hasi ziren. Gauerdian Rojas jenerala agertu zen 40 erasoko guardia tropa batekin eta etxeari su emateko agindu eman zuen. Gizon eta emakume bat sutik iheska atera zirenean tiroz hil zituzten, gainerakoak, sei gizon eta emakume bat, barruan hil ziren suaren ondorioz. Bizirik irten zen bakarra “Seisdedos”-en biloba izan zen, beranduago “la Libertaria” izenpetu zutena, besoetan haur batu zuela irten baitzen eraikinetik. Hurrengo egunean, Rojas jeneralak, herria eskarmentatu nahian, atxilotu gehiago hil zituen “Seisdedos”-en etxe errearen aintzinean. Hemeretzi gizon, bi emakume eta haur bat hilik suertatu ziren gertakari hauen ondorioz.

Nafarroan egoera nahasi xamarra zebilen ere. Probintzia osoko hiri eta herri desberdinetako CNT-k zituen hainbat lokal itxi zituen Gobernuak; horietako bat Altsasukoa izan zen, zeina maiatzaren 9tik ekainaren 26a arte itxia egon zen, baina ez dakigu zerk bideratu zuen itxiera hau. Tuterako lokala ere klausuratu zuten abenduan

eman ziren mugimendu anarkisten ondorioz. Gainera, erakundea bi urtetako ixiltasunera behartu zuten zabaldutako propaganda zela eta. Mendabiakoa, itxi zituzten bertze lokaletako bat izan zen, abenduko matxinadaren ondorioz.

Andosillan CNT-a 1936ko maiatzaren 1ean sortu zen. Idazkari nagusia José Méndez izan zen, zeinaren erranetan 1933ko azaroan Logroñon ospatutako plenoan, CNT-koak iraultzari gehitzea erabaki zuten. CNTren kide honen hitzetan nekazarien iraultza zera zen: "lurrak elkartu, ugazabei jabetza kendu, boterea kendu eta gero nekazal iraultza egin"[4].

Urte hartan Elío epaileak, Iruñeko Lehen Instantzia eta Instrukzio Auzitegiko epaileak, CNT-ko hiru atxilotu aske utzi zituen egin beharreko aurretiko diligentziak aurrera eraman eta gero. Joaquín Díaz Garde, Dionisio Ríos Francés eta Nicolás Erro Cilveti gazteak 1933ko uztailaren 23an hartu zituzten preso.

Berri gutxi iritsi zaizkigu beraiei buruz gaurko egunetara, azken finean pertsona ezezagunak baitziren, baina orduko aginbideetan gazte hauen zenbait datu biltzen dira.

Lehenengoa, Joaquín Díaz, Manterola eta Seminario etxeetan txokolategile gisa lanean aritu zen. Garai hartako dokumentuetan izan zituen nagusien testigantzak biltzen dira, zeinen erranetan Joaquín langile ona zen, ordutegia eta lankideak errespetatzen zituenak. Hiru aldiz atxilotua izan zen, horietako bi ekintza sindikalekin lotutakoak.

Bigarrena, Dionisio Ríos, hiru atxilotuetan ezagunena izan zen, CNT-ko lehendakaria izan baitzen 1934an. Lau anai-arreba zituen eta hauek mantentzen laguntzen zion aitari. Aurrekoak ez bezala, honek arazoak izan zituen lanekin, izan ere behin baino gehiagotan kaleratu zuten eta berriz ere hartu bere familiataz errukituta. Bere aitak udal lanetan lana eskatu zuen semearekin elkarbizitzea ezinezkoa zuelako, gaztea izaera zaileko pertsona baitzen; baina 1933ko uztailaren 17an kaleratu zuten.

[4] VIRTO IBÁÑEZ, J. J. "La C.N.T. en Navarra", *op. cit.*

Sarritan agertu zen Udal Lan Poltsaren bulegoetan kaleratutako lankideak defendatzen, beti ere modu mehatxagarrian. 1936ko abuztuaren 12an hil zuten.[5]

Nicolás Erro Cilvetitaz gutxi erran dezakegu. Hogei urte zituela atxilotu zuten eta ez zeukan inongo aurrekaririk. Momentu desberdinetan Carlos Eugui jaunaren alkohol fabrikan lan egin zuen peoi gisa, beti ere portaera ona erakutsiz. Ezkabako San Kristobal gotorlekuko 448 presoa izan zen.

Beren kasuak eramaten zituen epailearen pentsaera ezkertiar, errepublikar, sozialista eta liberalari esker aske gelditzea lortu zuten hiru gazte hauek. Bertze bat izango balitz epailea, ez zuten zorte bera izango, batez ere preso politikoak izanda. Ezagunak dira denontzat garai hartako atxilotu klase honek gartzeletan bizitzen zuen egoera kaxkarra. Jasan behar izaten zituzten tortura eta tratu txarrak bilduak gelditzen dira hainbat ikerketetan eta hurbileko adibidea dugu San Cristobal gotorlekuan gertatutakoa[6].

Jakina den bezala, Luis Elío Torres (Tarragona, 1895–Mexiko, 1968) Espainiako Gerra Zibileko lehenengo atxilotua izan zen, uztailaren 19ko goizean preso hartu bait zuten bere etxean, Roncesvalles kaleko 2. zenbakian, komisaldegi ondoan. Iruñeko epaile munizipala, lurjabe aberats bat zen. Barañaingo herria berea zen, hainbat lurralde zituen Iruñean (Landaben, Beritxitos eta San Juan de la Cadena inguruan) eta baita etxe eta errota bat Agoizen. Nafarroako aristokraziaren senide zen, hain zuzen ere Vesollako markesekin, Elíoko dukeekin, Gendulaingo konteekin, Uzketako kontearekin eta baita Rodeznoko kontearekin ere. Madrilen Zuzenbidean lizentziatu, Nafarroara itzuli eta abokatu bezala kolegiatu zen 1920an. Hiru urte beranduago, 1923an, ordezko abokatu fiskala izendatu zuten eta epaile munizipalaren postua lortu zuen 1926. urtean. Bere pentsaera ezkertiarrari esker, langile elkarte desberdinek Iruñeko "Comité Paritario Interlocal de Despachos, Oficinas y Bancos" zuzentzeko proposatu zuten. Laneko Auzitegi Misto honen helburua lan gatazkak konpontzea zen. Iruñeko Lehen Instantzia

[5] Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Dokumentazio Fondotik hartutako datuak.
[6] 1938ko maiatzaren 22an, Espainia Gerra Zibilean sartua zegoenean, gartzelako 2.500 presoek, gehienak arrazoi politikoengatik bertan zeudenak, libre izateko aukera ikusi zuten. Osotara 795 preso iheslari atera ziren eraikinetik, baina hiruk bakarrik lortu zuten 50 kilometrotara zegoen Frantziako muga pasatu eta libertatea berreskuratzea. 585 preso atxilotu eta presondegira itzuli zituzten, non zenbait hilabetez zigortutak egon ziren. Hamalau gizon heriotzara kondenatu zituzten. DOMINGO, C., *La fuga*, Ediciones B., 2011.

eta Instrukzio Auzitegiko epaile izan zen ere, eta postu honetan zegoelarik, mugimendu iraultzailearekin harremana izateagatik atxilotutako CNT-ko hiru militante aske utzi zituen 1933ko uztailean. Errepublikar, liberal, sozialista eta euskaltzale bezala ezagutua izan zen[7].

2. Aurretiazko eginbideak (*diligencias previas*)

2.1. 60/1933 aurretiazko eginbidea

Lehenengoa, DP 60/1933 zenbakia duena, Joaquín Díaz Garderena da. Hogeita bortz urteko gazte iruindar hau 1933ko uztailaren 23an atxilotu zuten bere etxean egindako miaketa bat eta gero. Bertan Bartzelonatik zetorren eskutitz bat konfiskatu zitzaion, egun haietan pizten ari zen mugimendu iraultzailearekin zerikusia izango zuelakoan.

Ez zen lehenengo aldia Manterola eta Seminario etxeetan txokolategile gisa lan egiten zuen gazte hau atxilotzen zutena. 1925ko maiatzaren 29an Lleidan preso hartu zuten gurasoen etxetik ihes egin eta gero. Urte batzuk beranduago, 1932ko otsailaren 15ean greba orokorra prestatzen ari zen Batzordearen partaide izateagatik ere atxilotu zuten. Hurrengo urteko maiatzaren 9an, ezkutuko bilera bat ospatzera zihoala harrapatu zuten; 7,65eko pistola batekin eta bi kargadoreekin.

Eskutitza Luis Leozek (CNTko kidea) bidalia zen 1933ko uztailaren 17an eta Eduardo izeneko gizon bati zuzendua zegoen. Idazleak dio hasieran ez ziola eskutitzik idatzi, aitaren eskuetan eroriko balitz ez zuelako irakurriko, baina azkenean bidaltzea erabaki zuela.

---

[7] 1936ko uztailaren 19an sekretako bi polizik eta bi falangistek, bere emaztearen eta hiru alaben aurrean atxilotu zuten. Eskaileretan lau rekete zain zituzten. Komisaldegiraino eskoltatua izan zen. Fusilatu behar zuten, baina German Izquierdo Larramendi komisarioaren konplizitatea lortu eta honek ihes egiten utzi zion. Generoso Huarte Vidondok (1886-1978), erreketeen kapitainak ere lagundu zion, izan ere hilabete batez bere etxean izkutatu zuen. Beranduago Blas Inza Cabasés, Gerra Karlistaren Juntako kideak, bere etxean izkutatu zuen hiru urtez, logela itsu batean. Gerra akituta, Blas Inzak eta Generoso Huartek Frantziara Elíoren ihesa prestatu zuten. Justo Sonante mugalariak lagunduta, muga zeharkatu zuen. Baionako Kontsulatura joan eta handik Gurs-eko kontzentrazio kanpora bidali zuten. Han hilabete batzuk eman zituen, non gaixotu egin zen. Azkenean familiarekin kontaktuan jarri zen eta Parisen elkartu ziren. 1940ko martxoaren 18an Mexikora iritsi ziren. 1968ko urtarrilaren 27an hil zen. JIMENO ARANGUREN, R., "La represión y depuración en la Administración de Justicia: Navarra, 1936-1945. Una primera aproximación", *Jueces para la Democracia*, 79 (2014), 86 eta hurrengo orriak.

Bartzelonatik datorren idatzi honetan, Leozek lan egiten duen fabrikan bizi duen egoera azaltzen du. Ez dago ados enpresaburuak hasiberriak tratatzen dituen moduarekin, ezta eskaintzen dizkien lan baldintzekin ere. Enpresaburua ohartu da Leoz Anarkista dela, eta prest dago fabrika ixteko. Bertzea berriz kartzelara joateko prest dago burges batek CNT-aren taktikak zapal aitzin. Anarkistek emandako mitinei buruz ere hitz egiten du eta nola bere ustez, beraiek izan behar diren azkenean preso dauden beren lagunen bila joan behar direnak. Edozer baino lehen Anarkistak baitira eta Justizia eskatu behar dutelako, kalean, aurpegia eta bularra emanez.

Bukaeran eskutitza ez erantzuteko eskatzen dio, laster elkar ikusiko baitute. Hau da eskutitzak zioena:

Barcelona, 17-17-33

Querido hermano y compañero Eduardo: no puedo por menos que empezar esta carta dando un Viva al Comunismo Libertario; esta firma para decirte que no te tengo por menos que ha Joaquín y José María, pues yo escribí una carta a José María y otra a Joaquín y a ti no te escrito porque temía que si el padre recibía la carta no te la entregaría pero yo he reflexionado y por eso te escribo, porque el Gobernador de Barcelona suspendió el otro día […] que en el mitin de ayer se dijo. Así que el gobernador se quedó con el árbol y nosotros con la fruta. Así que si no recibes esta carta pasará tres cuartos de lo mismo, porque un día de estos pienso salir para esa.

Aquí en la fábrica donde trabajo no puedo dar pie con bolo porque he querido oponerme al atropello de que son objeto los aprendices. El burgués ha comprendido que soy un obstáculo en el cual tropieza su marcha de explotador, por eso él está dispuesto a cerrar la fábrica antes de tener un obrero Anarquista, y yo estoy dispuesto a ir a la Cárcel antes de que un burgués pise las tácticas de nuestra […] C.N.T. esta mañana e […] al trabajo y me han dado […] teniendo trabajo yo […] por medio de la […] me he entrevistado con el […] y le he dicho que el […] cobrar la semana […] de lo contrario habría […] consecuencias; las federaciones de Cataluña han organizado […] campaña en pro de anarquistas […] Ayer se celebró el primer […] en la Barceloneta. Esto ya […] Joaquín. Hoy se celebra […] que […] no faltase y […] último se celebrará un mitin […] en la […] de la monumental […] y de aquí puede que seamos nosotros los anarquistas los que vayamos a sacar a nuestros hermanos que por defender unas ideas justas y humanitarias se encuentran prohibidos de libertad. Ante todo somos Anarquistas y debemos no pedir si no exigir Justicia, incluso para los monárquicos para fusilarlos mañana nosotros. Pero en la calle dando la cara y el pecho, no como los políticos que asesinan y esconden el fusil entre los pliegues de la bandera nacional.

No me contestes porque pronto voy por esa y sin más te despide anarquicamente tu hermano y compañero.

Luis Leoz

Aurretiazko eginbide baten bidez, Iruñeko kartzelara eramateko agindua eman zuten. Ekainaren 30ean, bertze diligentzia baten bidez aurreko atestatua Epaitegian utzia izan zenaren fede eman zen. Egun berean, probidentzia batekin, Santamaria epaileak kartzelan Epaitegia eratu zuen, atxilotua entzuteko eta gertatzen zenarekin erabaki bat hartzeko.

Díaz Gardek, uztailaren 31an eginiko deklarazioan, eskutitza konfiskatua izan zitzaiola erran zuen, baina gero berriro itzuli ziotela irakur zezan.

Egun berean, Santamaría alkateak Bigilantzia Komisaldegiari atxilotuaren aurrekari guztiak eskatu zituen.

Abuztuaren 2an, hirurogeita hamabi egun pasatu zirenean atxilotua izan zenetik, Elío epaileak Garderen atxiloketa bertan behera utzi eta berehala aske uzteko agindua bidali zuen.

Abuztuaren 8an, Elíok agindu bat bidali zuen Oporretako Gelara ('Sala de Vacaciones'), aurretiazko eginbide hauek hango epaile berezien esku gelditu behar ziren edo ez jakiteko. Hilabete bereko 17an Madriletik bidalitako dekretu bidez ezezkoa eman zuten eta diligentziak Iruñara itzuli zituzten.

1933ko abuztuaren 25ean Elío epaileak emandako agindu bidez kasua artxibatu zen.

2.2. 61/1933 aurretiazko eginbidea

1933an Elío Epaileak aske utzi zuen bigarren atxilotua Dionisio Ríos Francés izan zen. CNT-ra afiliatutako hogeita bortz urteko gazte hau uztailaren 23an atxilotu zuten bere etxean miaketa baten ondoren. Miaketa horretan 6,35 kalibreko pistola bat,

zenbait kartutxo eta txosten[8] bat konfiskatu zizkioten. Eginbidea bidez Iruñeko kartzelara zuzendua izan zen.

Uztailaren 30ean Santamaría epaileak Probidentzia baten bidez aurreko atestatua eta frogak Epaitegiaren esku gelditukо zirela erran zuen. Baita Kartzelako Epaitegi bat eratzeko agindua eman zuen ere, atxilotua entzun eta gero erabaki bat hartzeko. “Costituyase el Juzgado en la Cárcel de esta Capital dentro del termino legal para oir al detenido y con lo que resultese acordará”.

Ríosek bere deklarazioan aitortu zuen pistola berak zeukala, baina ez zela berea, baizik eta Eusebio izeneko lagun batena. Txostenari buruz berriz, bere azalpenen arabera, gestioei buruzko azalpen bat bertzerik ez zela zioen.

Hurrengo egunean, epaile berak, atxilotuaren aurrekari guztiak eskatu zituen.

Abuztuaren 2an, Luis Elío epaileak emandako agindu batekin, Ríosen etxean aurkitutako pistola eta kapsulak delitu bat izan zitezkeelakoan, lekukoen testigantzatik bereizi behar zela agindu zuen, sumarioari hasiera emateko eta atxilotuaren egoera erabakitzeko.

Zortzi egun beranduago, abuztuaren 8an, Elíok agindu bat bidali zuen Oporretako Gelara eginbide hauek hango Epaile berezien esku gelditu behar ziren edo ez jakiteko. Madriletik bidalitako dekretu bidez ezezkoa eman zuten eta eginbideak Iruñera itzuli zituzten.

1933ko abuztuaren 24ean Elío epaileak agindu bidez kasua artxibatu zuen.

2.3. 65/1933 aurretiazko eginbidea

1933ko uztailaren 23an poliziak Nicolás Erro Cilveti CNT-ko kidea atxilotu zuen Sindikatu Bakarraren lokala irekitzera zihoala, sindikalista ezaguna izateagatik eta egun haietako mugimendu iraultzailerarekin zerikusia izango zuelakoan. Gakorde bat

[8] Aurrerago txosten honen edukia azaltzen da.

eta 7,65eko pistola bat konfiskatu zitzaizkion. 1883 zenbakidun diligentzia bidez probintziako kartzelara zuzendua izan zen.

Santamaría epaileak, uztailaren 30ean probidentzia bat diktatu zuen non kartzelako Epaitegia eratzeko eskatzen zuen, atxilotuak bere burua defendatzeko aukera izan zezan.

Errok 31ean egin zuen deklarazioan, kargadorea hutsik aurkitu zuela azaldu zuen eta gakordea lagun batek utzia zela, etxeko ateko balio zitzaion edo ez ikusteko eta azkenean ez zitzaiola balio izan.

Egun berean, Santamaría epaileak Iruñeko Zaintza Komisaldegiari Erroren aurrekari guztiak eskatu zizkion. Hiru egun beranduago Elío epaileak bertze probidentzia batekin, atxiloketa baliorik gabe utzi eta presoa lehen bait lehen aske uzteko agindua eman zuen. Errok hirurogeita hamabi egun zeramatzan preso. Egun beran komunikatu zitzaion aske gelditzen zela.

Abuztuaren 18an, epaile berak probidentzia batekin Epaitegi Gorenera bidali ziuten diligentziak, beraien aginpidea zen edo ez ikusteko. Abuztuaren 21ean, Epaitegi honek bere esku ez zegoela dekretatu zuen eta dokumentuak jatorrizko epaitegira itzultzeko agindu zuen.

Hilabete bereko 25ean Elíok probidentzia bidez kasua artxibatu zuen.

3. CNTaren Langabetuen Batzordearen txostena

CNT-ko hiru kide hauen atxiloketetatik konfiskatu zuten dokumentu garrantzitsu edo esanguratsuena, eta oraindik aztertua izan ez dena, Dionisio Ríosen etxean aurkitutakoa izan zen: CNT-k Langabetuen Batzordetik jasotako txosten bat[9].

Bertan, 1933ko uztailean Iruñeko Udaletxean eman zen langile kaleratze kopuru handiaren aurrean Batzorde honek hartutako neurriak eta eginiko kudeaketak

[9] Eranskinean txosten honen transkripzio osoa ageri da.

banan-banan izendatzen dira. Agiri honen helburua Lanaren Konfederazio Nazionalak Batzorderi Greba Orokor bat antolatzen laguntzea zen, Nafarroako hiriburuko Udaletxeak egun haietan zituen arazo ekonomikoen ondorioz, langileek jasan behar zuten errepresioari aurre egiteko.

Egoera ekonomiko zail honek eta langabeziaren gorakadak langileriaren eta hauek errepresentatzen zituzten erakundeen haserrea piztea ekarri zuen. Altxamendu eta greba ugari eman ziren garai hartan, lan eta bizi eskubide eta baldintza hobeak eskatu nahian, baina batez ere krisiak ekarri zuen langabezi tasa altuaren aurrean, kaleratuak ez izateko.

CNTk eta UGTk, nahiz eta ideologia desberdineko bi erakunde ziren, gogor borrokatu zuten beren ideiak defendatzeko, baita langileen egoera ere, baina batez ere anarkistak izan ziren ohiartzun gehien izan zutenak. Largo Caballerok, Lan ministroak, lan arloan hainbat erreforma egin zituen: Lan Kontratuen Legearen aldarrikapena, negoziazio kolektiboa, Epaimahai Mistoak, Lan Inspekzioa, aseguru sozialen bultzada eta Amatasun Aseguruaren eta Lan Istripuen Aseguruaren aldarrikapena; baina hauek moderatuegiak zirela kontsideratzen zituen CNTk. Bere ustez aldaketa hauek ez ziren proletarioarentzat onuragarriak, are gutxiago, UGTk etekinak aterako zituela uste zuen. Horrela bada, greben deialdiarekin jarraitzeko erabakia hartu zuen. Ezagunenetako bat 1933ko urtarrilaren 8an eman zen hiru aste iraun zituen greba matxinada izan zen. CNTk aitzaki bezala altxamendu hau tren-industriako greba bat bertzerik ez zela erran zuen, baina sahiakera hau hutsala zen, erakundeak berak aldarrikatu baitzuen propaganda bidez. J. Peirats-ek zioen bezala:

> "...indar publikoa, eraso guardia dotoreak eta eskarmentu handiko guardia zibila, edozein gertakizunerako prest zeuden. Iraultza deitua izana zen. Baina erabilitako hitzarekiko fideltasuna, iraultzaren arloan, eztabaidagarriak diren emaitzen duintasun konfederal antzekoa izan da beti."

Horrela bada, matxinada kalera irten zen, nahiz eta tren-industriako greban berahala porrot egin zuen UGTk jarrera ofizialaren alde egin zuelako.

Urte batzuk lehenago, 1931ko uztailaren 29an, Errepublika aldarrikatu zenetik hiru hilabete bakarrik pasatu zirenean, Miguel Maurak (Madril, 1887ko abenduaren 13a

– Zaragoza, 1971ko ekainaren 3a), CNTaren errepresiozko politika gogor kritikatu eta zera ihardetsi zuen: “Nire eginbeharra hemen zera erratea da, CNTri, FAIri eta baita zuei, jaun-andreak, Espainiako legedia osotasun bat osatzen duela, eta hain zuzen ere, beraiendako, beren betebeharrei dagokienez, legedi horretaz kanpo dagoen lurraldea baldin badago, lana arautzen duten legeak onartzen ez baitituzte eta batzorde paritarioak, epaimahai mistoak eta, batez ere, gobernu aginpidea ezagutzen ez dituztenez, beren eskubideei dagokienez lurralde salbuetsi bat ere egonen da eta bilera, elkartzea eta babesten dituen gainerako legeak ez dira existituko. Lan legeak, harremanezko bizia arautzen dituzten legeak bete ditzatela, orduan gobernuarekiko harreman bizi normala bizitzeko eskubidea izango dute.”

CNT-arekiko Miguel Mauraren gerra adierazpen hau Lan ministroak, Largo Caballerok, egindako bertze deklarazio batekin bat dator, zeinak Errepublika ezarri berria zenean, lege dekretu baten bidez epaimahai mistoak, diktadurako batzorde paritarioak zirenak baina bertze izen batekin, ezarri zituen (1931ko maiatzak 7). Gorte Konstituziogileek berretsitako dekretu hau, antolatuako langileri erdia kanpo uzten zuen. Arbitrajea kontuan hartzen ez zuen grebak legea hausten zuen, zeinak langileen eta beren esplotatzaileen arteko desberdintasunak aldez aurretik arbitratu behar zirela agintzen zuen. Inposaketa honetaz gain, legedi honek greba eskubidea ezabatzeko joera zuen maiz, langileek defendatzeko zuten arma bakarra[10].

1931ako abenduaren 9an, Errepublikako Konstituzioa promulgatu zen. Konstituzioaren inguruko eztabaida anitzak, ordena publikoaren arazoen aurrean eman ziren, Espainia osoan zabaldu ziren greba orokor ugariak zirela eta. Bitartena, Lan Ministeritzan sozialistek aurrera eramaten zuten politika monopolizatzaileak bere honetik ateratzen zuen CNT.

Hurrengo urteko urtarrilaren 5ean, Logroñon, hildako eta zauritu ugari egon ziren biztanleria zibilaren artean, Castiblancon guardia zibil batzuen hilketei erantzun gisan. Ekintza hauek anarkosindikalistei garai iraultzailea hasteko ateak ireki zizkien. Orduan “soinketa iraultzailea” delakoari buruz hitz egiten hasi zen. Juan García Oliver

[10] PEIRATS, J., *Los anarquistas en la crisis política española*, Ruedo ibérico, Paris, 1971, 3 ale.

(1901, Reus, Tarragona, Espainia – 1980, Guadalajara, Mexiko), garaiko anarkista iraultzaileak, zera idatzi zuen:

> "[...] Laister hasi nintzen sindikalista zaharren etsipen jarreraren aurrean oposaketa ideologiko bat eratzen saiatzen ari ziren lagunekin harremanak izaten. Erakunde barruan jarraitu beharreko bidea markatu nuen: aldarrikatu berri zen errepublika komunismo libertarioak gainditu beharreko entitate burges bat bezala kontsideratzea, eta hau lortzeko bere egonkortzea eta kontsolidazioa eragotzi behar zen, ekimen iraultzaile pendular baten bidez, ezkerreko langile klasearen kontura, zeina burgesen alderdi eskuindarrak kontra eginen zuen, errepublika burgesaren erortzea jazo arte.
>
> Militante anarkosindikalistek daukagun ekintza iraultzaileerako ohitura, bakarkako atentatu eta sabotaje ekintzetatik itzuriz, sistema kapitalistaren estrukturen kontrako ekintza kolektibo guztiak zifratuz, indar zapaltzaileenganako, ejerzituarenganako, Guardia Zibilarenganako eta poliziarenganako beldurra gainditu arte, altxamendu ekintzen sistematizazioaren bidez, *gimnasia revolucionaria* praktikan jarriz. [...]"[11].

Termino berri honen eginkizuna "Errepublika Burgesaren" egonkortasuna eragozteko matxinada bat prestatzea zen.

Batzordeak idatzitako txosten honetan argi eta garbi ikusten da hartu zuten erabakira iritsi aintzinetik zenbait gestio egin zituztela. Hainbat organo eta pertsona garrantzitsurekin elkartu ziren arazoari irtenbide bat bilatzen saiatzeko neurri gogorragoak hartu baino lehen, hala nola, Diputazioarekin, Gobernadorearekin, Komertzio Ganbararekin... baina erakunde hauek jarri zizkieten oztopoak eta gero, eta inongo konponbiderik lortu gabe, greba orokor batera jotzea erabaki zuten, beren ustetan, eta dokumentuan ageri den bezala, greba langileen tresnarik eraginkorrena baita.

Espainian langile klasea beren eskubideak defendatzeko eta bizi kalitate hobe bat eskatzeko antolatzen hasi zenetik, hainbat greba mugimenduren protagonista izan da. Lehenengo mugimenduak ikusteko 1730. urtera arte atzera egin behar dugu, noiz lehendabiziko greba orokorra eman zen Guadalajaran, baina urteak pasa ahala lan legeria aldatzen joan da, eta honekin batera grebak eta matxinadak ere. Bigarren Errepublikan greba orokor aunitz eman ziren Espainiako puntu desberdinetan.

---

[11] GARCÍA OLIVER, J., *El eco de los pasos*, Ruedo ibérico, Paris, 1978, 115. orr.

1931ko maiatzean CNT-ko Telefono Sindikatu Bakarrak greba orokor bat aldarrikatu zuen. Ugetistak eta zenetistak Errepublikaren aldarrikapenarekin beren lan arloko helburuak lortu ez zirela ikustean, 1931 eta 1933 artean greba mugimendu ugaritan parte hartu zuten. Denboraldi honetan, Madrilen erraterako, greben kopurua biderkatu zen, 20 izatetik 41 izatera, galdutako lanegunak berriz, hogeita hamar aldiz handitu ziren, 72.021etik 2.422.749etara pasatuz.

Estatuan orokorrean berriz, datu ofizialek bertzelako gauza diote: 1931ean 610 grebetatik 1.046 greba izatera pasatu zen ondorengo bi urtetan, 544ra jaisteko 1934. urtean. Hiri garrantzitsuenetan greba orokorrak, aunitzetan CNT-k edo sindikatu komunistek bultzatutakoak, ordenaren indarrekin istiluetan amaitzen ziren. 1931ko uztailean adibidez, Sevillan greba eta liskar bortitzak hilabete bereko 23an gerra-egoerarekin eta lau langile komunisten heriotzarekin bukatu ziren. Hurrengo urtean, ekintza garrantzitsuenetako protagonistak Asturiaseko meatzariak eta Bartzelona eta Sevillako langileak izan ziren, non azken honetan Sanjurjo jeneralaren (Iruña, 1872ko martxoak 28 - Estoril, Portugal, 1936ko uztailak 26) altxamenduaren aurkako protestak eman ziren[12].

1933ko azaroan eskuindarrek hauteskundeak irabazi zituztenean, CNT greba orokor iraultzaile bat antolatu zuen urte bereko abendurako, baina greba honek porrot egin zuen. 1934. urtean ekintza zuzeneko estrategiak zenbait garaipen lortu zituen, erraterako Madrilgo zerbitzari greba.

Iraultza mugimendu garrantzitsuena 1934ko urriaren 5 eta 19 artean eman zen, eskuin alderdiak lortutako askatasun eta eskubideen atzerakada eman zenean. Mugimendu hau sektore zabal eta PSOE eta UGT-ko buruzagi garrantzitsuek bultzatutakoa izan zen, Largo Caballero eta Indalecio Prietok (Oviedo, 1883ko apirilak 30 - Ciudad de México, 1962ko otsailak 11) bertzeak bertze. Lanaren Konferazio Nazionalak (CNT), Federación Anarquista Ibérica (FAI) eta Partido Comunista de España (PCE) taldeek ere parte hartu zuten. Erreboltaren eragin-gune garrantzitsuenak

[12] PEREZ LEDESMA, M., *Estabilidad y conflicto social. España, de los iberos al 14-D.* Nerea, Madrid, 1990, 207 eta hurrengo orriak.

Katalunia eta Asturiasen eman ziren, baita Gaztela eta Leoneko meategietan eta Valladolideko hiri eta herrixketan ere.

Grebak arraskasta gehien izan zuen eremua Asturias izan zen, non sozialista, anarkista eta komunisten arteko paktu batek Errepublika Sozialistaren eta komunismo libertarioaren aldarrikapena eraman zuen zenbait eremutara. Honen aurkako errepresioa bortitza izan zen: bortxaketak, exekuzioak...

Euskal Autonomi Erkidegoan ere garrantzi handia izan zuten urriko ekintza hauek. Greba matxinada iraun zuen astean (urriaren 5etik 12ra), berrogei hildako egon ziren, horien artean Marcelino Oreja Elósegi, Bizkaiko diputatua 1931 eta 1933an eta militante tradizionalista ospetsua. Bilbo eta Eibarreko meategi eta eremu industrialari esker sozialistek Espainia osoan lortutako garaipenean Euskadik garrantzia handia izan zuela adierazi zuten. Gainera Bizkaia sozialismoaren gotorleku historikoetako bat izan zen, baita Indalecio Prietoren base politikoa ere. Matxinada honetan EAJ-k eta ELA-k ez zuten parte hartu, sozialismoaren ideien aurkako erakundeak baitziren.

Enpresaburuak ohituak zeuden nahi zutena egitera eta zaila zen beraientzat lan baldintzak aldatzen ari zirela onartzea. Batez ere Epaimahai Mistoek hartzen zituzten erabakiak langileentzat onuragarriak zirenean. Largo Caballerok aurrera eramandako erreformetan sortutako kapitalisten eta langileen ordezkariez eratutako korporazio hauek, lan arloarekin zerikusia zuten arazoendako konponbideak ematen zituzten; enpresaburu eta langileen artean armonia bat bilatzea zen beren helburua.

Erran bezala, Errepublikako garai aurrerakoian lan arloarekin zerikusia zuten legedi ekimenak Francisco Largo Caballero sozialistak eta behin-behineko Gobernuko Lan Ministroa (Azañaren ondorengo gobernuetan kargu honetan jarraitu zuen 1933ko azaroaren 12ra arte) ohi ez bezalako azkartasunarekin bultzatu zituen. 1931ko apirila eta ekainaren artean hartutako zenbait erabaki maiatzaren 1ean jai eguna deklaratzea, dekretu bidez soldata minimo bat ezartea eta Primo de Riveraren diktadurako Batzorde Paritarioak mantentzea izan zen. Azken hauei Epaimahai Mistoak deitu zitzaion. Beren jarduera espazioa landatar laborantza-eremuraino zabaldu zen eta isunak jartzeko gaitasunarekin beren eskumenak indartatutak ikusi zituzten. Laster konprobatu ahal izan zen Epaimahai Misto hauek inpartzialak ez zirela, beren erabakiak gehienetan langileen

onerako baitziren eta ondorioz enpresaburuen haserrea eragiten zuten, soldaten igoerarekin galtzen ateratzen zirenak. Hala ere, zenetistak Epaimahai hauetan ez zuten parte hartu nahi izaten eta beren ekintzak errefusatu zituzten.

1933 erdialdera sozialista eta errepublikar ezkertiarren arteko harremana hausten joan zen. Honen arrazoia langileen atsekabea izan zen, zeinek PSOEko buruen helburu iraultzaileak betetzeko eta langileriarendako bizi baldintza hobeak lortzeko ekintza erradikalagoak egiteko eskatu zieten. Bi alderdien arteko ez adostasun honek Azañaren dimisioa eta hauteskunde orokorren aurreratzea ekarri zuen. Azaroko hauteskunde hauek CEDAri eta Lerrouxen talde kontserbatzaileari garaipena eman zioten, zeinek aliantza baten bidez aurreko Gobernuaren erreformak bertan behera uzten hasi ziren, horietako bat Epaimahai Mistoek hartutako zenbait erabaki bertan bera uztea izan zen. Erabaki hau sozialistek konbokatu zuten grebaren arrazoietako bat izan zen. Greba hau landa eremuan eman zen, 13 hildakorekin, 200 zauriturekin eta ehundaka langile atxiloturekin amaitu zuen.

Garai hartan ezaguna da denontzat, hainbat ikerketa eta azterlanek dioten bezala, Espainia ez zegoela bere momentu hoberenean ekonomiari dagokionez; Estatu Batuetako Balore Merkatuaren beherakadaren ondorioz mundu osoan zabaldu zuen krisi ekonomikoak eraginak izan zituen bertan, eta Nafarrorarentzat bistan da ez zela desberdina izan.

Nafarroan krisiak eragina izan zuen erakundeetako bat Iruñeko Udaletxea izan zen. Urteroko udal lanak egiteko aurrekontua ikaragarri murriztu zuten, aurreko urteetako baino askoz ere baxuagoa zen eta ondorioz langile aunitz kaleratuak izan ziren egun batetik bertzera, zentzu aunitzik ez zuten irizpide batzuk kontutan hartuz. Aurrekontu hau 10.000 pezeta asteko zen, 200 edo 300 langileren baliokide, eta honek 500 bat langile kaleratzea suposatu zuen, izan ere ordura arteko aurrekontua 25.000 pezetakoa zen[13]. Gainera, aurrerago aipatuko dudan bezala, alkateak argi utzi zuen ez zuela inolako kudeaketarik egingo gai honen inguruan.

[13] Donostiako Udal Liburutegi Digitalean artxibatutako 1933ko ekainaren 18ko egunkari batetik ateratako datuak.

Nicasio Garbayo Ayala dugu egun haietako alkatea. Mediku eta politiko errepublikar hau Iruñeko alkate izan zen 1931 eta 1934 artean; II. Errepublika aldarrikatu zenetik bigarren alkatea eta Gerra Zibila hasi zen arte azken alkate errepublikarra.

Langabeziaren sorrera ('Génesis del Paro') izenburua duen txostenean, egoera honi denentzat onuragarria izan zitekeen irtenbide bat bilatzeko aurrera eramandako prozesu guztia azaltzen du Batzordeak: norekin solastu zuten, jaso zituzten erantzunak, eginiko ekintzak...

Beren gestioak Udaletxearen egoera ekonomiko kaxkarraren berri jakin zutenean egiten hasi zirela diote. 1933ko ekainaren lehendabiziko egun haietan zurrumurru hutsa ziruditen berri haiek, Garbayo Alkateak udal lanak deitu zituenean egiaztatu ahal izan zituzten. Batzordearen ustetan, Udaletxearen eginbeharra arazoa konpontzea zen. Alkatea ordezkari bezala erabiliz, Udalak beharrezko neurriak hartu beharko zituen konponbide bat aurkitzeko. Hau horrela interpretaturik, erakundeari bere iritzia jakinarazi zioten.

Arazoa irten behar ez zuen lekutik irten zelako eta industria edo enpresa partikularretan zegoen lan aukera txikiak ikusita, Batzordekoak Gobernu Zibilera jo zuten, honek probintzian zuen prestigio eta autoritateari esker etxeetara lana eta lasaitasuna ekartzeko egin beharreko gestioak egingo zituelakoan. Hemen, ordea bertze atsekabe bat bertzerik ez zuten lortu, txostenean ederki azaltzen duten bezala: *proiektu ederrak, hitz ederrak, baina kalitate eza*. Langileriarengan eragina zuten seriotasun eza eta mespretxua bertzerik ez zuten lortu; egun haietan normala eta ohikoa zen joera; enpresaburuek ez zituzten langileak kontutan hartzen. Eta hori agerian gelditu zen ekainaren 17an goizeko hamarretan Udaletxeak langileak konbokatu zituenean. Nahiz eta kaleratzeak sahiesteko bere eskuetan zegoena egiten saiatu ziren, langileburuak langile guztien izenak zituzten zerrendekin eskuetan agertu ziren. Zerrenda hauetan lanean jarraitzen zutenen eta kaleratuak izango zirenen izenak ageri ziren. Gainera, liskarrak eragozteko nahiarekin, eraso eta segurtasuneko polizia bertaratu zen, eta horrela, langabetu izatera pasatzen ziren polizia-lerro baten aintzinetik igaroz.

Dionisio Ríos, arestian aipatutako atxilotua eta dokumentu honen jabea, kaleratu hauetako bat izan zela erran genezake, izan ere, berari buruzko aginbideek biltzen dituzten dokumentu eta datu guztien artean, bere aurrekariak agertzen dira, non Udaletxeko udal-lanean aritu zela diote, 1933ko uztailean kaleratua izanik. Baliteke ere, konfiskatutako dokumento hori berak idatzia izana, sindikalista sutsua baitzen eta maiz bere laneko lagunak defendatzeko nahiarekin arazoak izan baitzituen enpresaburuekin. Hauek hala ere suposizio hutsak dira, daturik ez baititugu aurkitu eta txostena ez baitago pertsona baten izenean sinatua, Batzorde osoaren izenean baizik.

Polizia bertaratzearen arrazoia garaiko giro piztuarekin justifikatzen da. Erran bezala gero eta ugariagoak ziren beren eskubideak aldarrikatzen zituzten langileen matxinada eta altxamenduak. Espainiar estatu osoan barna zabaltzen ziren, sektore desbedinak ordezkatuz eta ondorio desberdinak lortuz. Ekintza hauek ez zituzten bakarrik lan duin bat izateko eskubideak eskatzeko aurrera eramaten, baizik eta lanarekin lotutako bizi baldintza hobeak eskatzeko ere: soldata duin bat, lanordu motzagoak, ordaindutako oporrak...

Anarkosindikalistek eragiten zituzten egoera hauekin, gero eta indar gehiago hartzen ari ziren. “Trentistek” jokaera modu honi anarkoboltxebikea deitu zioten eta Isaac Puente doktoreak, orduko intelektual zenetistak, zera erran zuen:

> “Iraultza politiko bat hiriko frontean egin daiteke... Iraultza sozialak fronteen zabalena behar du, herrixka bakoitzeko baluarte bat egin behar du... Zenbait burkide ausartek edo sindikatu landatar batek, etsaien desarmetzara eta iraultzaileen armamentura ekin diezakete. Herri batean erreza da egun aunitzez blokeo bat mantentzea, bizirauteko bide nahiko baitaude... Hiriko lagunek eginbehar garrantzitsuago dute. Indar armatuari xakean ekarri beren anaiak, nekazari matxinatuak, ez menderatzeko. Etsaiaren indarrak distraitu. Greba iraultzailea eta borroka bortitza mantendu. Landako esperientzia ahal den denbora gehien irautea egin, ebidentzia inork ezeztatu ez dezan: komunismo libertarioak egin dezakeena”.

Bigarren Errepublikaren aldarrikapenak langileen artera gogo eta poz kutsu bat ekarri zuen, aldaketa posibleen eta lan baldintzen hobekuntzaren garai bat bizi izan zen. Momentu horretan CNT-aren zuzendariek erakundearen helburu garrantzitsuena bezala beren sendotasun sindikala ezarri zuten, CNTa langileen arteko erakunde nagusia izateko.

Erakunde ofizialei laguntza eskatzerakoan eta hauek emandako ezezkoaren aurrean, Batzordekoak umezurtz sentitzen ziren eta horregatik Gobernadoreari baimena eskatu zioten asanblada bat ospatzeko. Honek baiezkoa eman zien eta horrela bada, bi egun beranduago, gaueko 8etan asanblada ospatu zuten, langabeziari konponbide bat emateko nahiarekin. Hau ez zen izan bilera hartan egin zuten gauza bakarra, afiliatuen batzorde bat eratu baitzuten ere.

Nahiz eta agintariaren baimena lortu zuten batzordea egiteko, ugariak ziren anarkistek ixilpean ospatzen zituzten bilerak, batez ere aurreko urteetan talde mota hauek jasan zuten errepresioaren ondorioz: lokalen itxierak, ekintza sindikalistak egiten ez uztea, taldeak legez kanpo uztea, sarekadak, kideen atxiloketak...

Hau da, adibidez, FAI-ri (Federación Anarquista Ibérica / Iberiar Federazio Anarkista) pasatu zitzaiona. Ideologia anarkista zuen erakunde hau, tokiko, probintziako eta eskualdeko federakundeez osatua zegoen. Bere esistentzia ezaguna zen arren, ixileko eta ezkutuko erakunde bezala jarraitu zuen urte pare batez. Bere jatorri ezkutuak zaila egiten du bere kideen zabaltasuna kalkulatzea. 1933rako, Errepublikaren aurkako matxinak antolatu eta aurrera eraman zituztenean, 10.173 kide zituen gutxi gora behera. 1933ko urrian Madrilen antolatutako FAI-ren plenoan, 569 taldeetako 22 ordezkarik parte hartu zuten. Hauek 4.839 kide biltzen zituzten. Gainera 5.334 ordezkaridun 633 talde gehitu ziren.

Taktikoki iraultzailea zen erakunde hau. Dirua eskuratzeko bankuak ebasteari ekin zioten eta hainbat greba orokorren antolatzaileak izan ziren. Hala eta guztiz ere, erakundearen barruan mota guztietako pertsonak biltzen ziren; jende bakezaletik iraultzaileetaraino.

Harreman estua zuen FAIk CNT sindikatu anarkosindikalistarekin eta aunitzetan bi errakundeen siglak elkarrekin ikusten ziren: CNT-FAI. Faistek “trabazón” izeneko estrategia aurrera eraman zuten. Estrategia honen arabera, FAIko kideek CNTko militante izaten jarraitzen zuten, horrela bigarren honen izaera anarkista mantentzen laguntzeko. Baina CNTk ekintza sindikalistetan arreta jartzen zuen bitartean, FAIk Estatua, Eliza eta autoritate guztien zapalkuntza eta suntsitzea bilatzen

zuen, gizarte anarkistaren eraikuntza bilatzeko asmoarekin, inolako autoritaterik gabeko eta autogestioan oinarritutako gizarte askea.

Arestian azaldu dudan bezala, zenbait irizpide hartu ziren kontutan langileak kaleratuak edo ez izango ziren erabakitzerako. Laneak jarraitu zuten langileen gehiengoa ezkonduak ziren, hiru kategoria desberdinetan sailkatzen ahal zirenak: alde batetik senar-emazte gazteak zeuden, bat, bi edo hiru seme-alaba zituztenak. Bigarren taldea, berrogei urte baino gehiagoko senar-emazteena zen. Hauek ere seme-alabak zituztenak, zeinak denak edo gehienak lan egiteko gai ziren. Azken taldean senar eta emazteaz bakarrik osatutako familiak sartzen ziren.

Bertzelako familia karga edo egoera pertsonala zituzten langileak kanpo utzi zituzten, beren egoerak aztertu gabe. Aunitzek anai-arrebak edo gurasoak beren kargu zituzten, baina Udaletxeak ez zituen familia behartuak bezala aintzat hartzen eta horregatik ez zieten lanean jarraitzen utzi. Ezkonduetan beharrak baldin bazeuden, ezkongabeetan are gehiago bazirela ikusita, diskriminazio honen aurrean Batzordeak kontuak eskatu zizkion Udalari. Gainera, Udaletxeak langabeziari aurre egiteko 500.000 pezeta zituela jakinarazi zieten.

Horregatik Udaletxeari gehiengoa berriz hartzera behartu behar zitzaiola erabaki zuten, langile gehienak egoera berdinean aurkitzen zirelako eta ezin zirelako salbuespenak egin.

Diputazioarekin ere zenbait gestio egin zituzten. Dokumentuan argi utzi nahi dute trabak jarri zizkietela presidenteordearekin elkartzeko eta behin berarekin egotea lortu zutenean, honek Nafarroako Bide Zuzendaritzako Nagusiarengana bidali zituen, Nafarroako Diputazioak onartutako proiektuen berri emateko. Batzordearen ustetan azalpen aunitz baina irtenbide gutxi.

Gobernadoreak aurrera eramateko asmoa zuten zenbait proiektu azaldu zizkien, hala nola, Zalditeria kuartelaren eraispena, lanak Bardeetan... baina beraiek dioten bezala, hauek hitzak dira eta ez ekintzak. Tramite burokratikoetan gelditzen diren aferak direla kexatzen dira.

Merkataritza Ganbarekoek, Lehendakaria Gobernadorearekin eta ”Indar Bizi” taldearekin elkartu behar zela jakinarazi zioten elkarteari. Bilera horren helburua egoera hobetzen saiatzea omen zen, konponbide berriak bilatuz.

Batzordea agintari eta organo ofizial desberdinekin elkartu zen behin baino gehiagotan eta momentu desbedinetan, baina hauengandik jasotako laguntza eskasaren ondorioz, Greba Orokor bat antolatzeko laguntza eskatzen diote CNT-ri.

Seguru asko dokumentu hau konfiskatua izan ez balitz, greba orokor batean amaituko zuten Iruñeko Udaletxeko langileak.

Amaitzeko, urte hauek nola bukatu ziren aipatuko dugu. 1933. urte bukaeran parlamentuaren oposizio kontraerreformistak aurrerapauso handiak eman zituen eta bide luzea egin zuen. Urte bereko urrian Madrilen Falange Española ideologia faszistako taldea sortu zuen José Antonio Primo de Riverak, diktadorearen semeak. Alderdi eskuindarrak indarra irabazi zuen, batez ere CEDAren sorkuntza eta gero, zainak eskuindarren indar gehienak biltzea lortu zituen. Aldi berean, bertze indar eskuindarrak ere ona bildu ziren: Renovación Española (Calvo Soteloren eskutik), Comunión Tradicionalista (karlistak alderdi honetara bildu ziren); baita alderdi faxistak ere: aipatutako Falange Española eta JONS edo Junta de Ofensiva Nacional Sindicalista. Azkeneko bi alderdi hauek 1934. urtean batu ziren, FE-JONS erakundea osatuz. Bitartean Gobernuak jendearen laguntza eta babesa galtzen hasi zen eta eskuina Martínez Velascok zuzendutako “Partido Agrario” eta Gil Roblesen CEDA (Confederación Española de Derechas Autónomas) taldeen inguruan biltzen hasi zen.

Gobernu Radikal-Sozialistaren krisiak 1933ko azaroaren 19rako hauteskunde orokor berriak deitzea eragin zuen, eskuindarrei garaipen argi bat eman zietena. CNT-ak botu abstentzioa aldarrikatu eta propaganda kanpaina handi bat piztu zen gai honen harira: “Frente a las urnas, la revolución social.”

Horrela bukatu zen geroago Biurteko Erreformista deitu izan zaion garaia, Biurteko Erradikal-Zedista hasiz. Europan faszismoa zabaltzen joan zen eta honek CNT tarteka legez kanpo bere lanarekin jarraitzera bultzatu zuen.

1934ko otsailean, CNT-aren Pleno Nazionalak akordio bat sinatu zuen, non UGT deitzen zuten:

> "Causas ajenas a la organización Confederal impidieron a ésta dirigirse antes a la clase trabajadora, como hubiera sido su deseo. Reunido el Pleno Nacional con la representación de todas las regiones, estudió detenidamente la situación política y social de España, constatando que tanto las libertades individuales como los derechos ciudadanos, se encuentran en la actualidad restringidos y conculcados como en los peores tiempos de la monarquía. Los daños de la represión consecutiva por parte de los elementos republicanos y socialistas que han gobernado el país, han dado razón a lo propagado por la CNT, en el sentido de que la República como todos los regímenes conservadores y democráticos, no puede dar satisfacción a las necesidades y aspiraciones de la case trabajadora.
>
> Y considerando que la conducta de la República Española tiende a conducir al país a la implatación del fascismo, el Pleno determina marcar la posición de la organización demostrando a través de ella a la clase trabajadora que la CNT, respondiendo a su trayectoria revolucionaria y, atenta a las manifestaciones de los organismos representativos de la UGT estará dispuesta, como siempre, a contribuir con todas sus fuerzas a todo movimiento revolucionario que tienda a la manumisión de toda, pero toda, la clase trabajadora, sin que esta manifestación harto conocida implique compromiso o pacto con fuerzas o partidos políticos.
>
> Por lo tanto, la CNT emplaza a la UGT a que manifieste clara y públicamente cuáles son sus aspiraciones revolucionarias. Pero téngase en cuenta que al hablar de revolución no debe hacerse creyendo que se va a un simple cambio de poderes, como en el 14 de abril; sino a la supresión total del capitalismo y el estado."[14]

CNT-koek ez zuten inoiz erantzunik jaso UGT-ren aldetik.

III. ONDORIOA

Txosten honetatik eta garaiko testuingurutik hainbat ondorio atera ditzazkegu. Horietako bat langileek egindako lan gogorra izan daiteke. Nahiz eta sindikatuak maiz ilegalizatuak egoten ziren edo grebara jotzeak delitu bat suposatzen zuen, beldurrik gabe ateratzen ziren kalera berea zena defendatzeko intentzioarekin.

[14] 1934ko otsailaren 13an Bartzelonan CNTaren Pleno Nazionalean hartu zen erabakia. Erakundearen web orritik hartua.

Grebak, iraultzak, matxinadak, erreboltak. Lan arloari dagokionez giro biziko urteak izan ziren Bigarren Errepublikakoak. Bi taldetan banatzen zen gizartea: langile zapalduak alde batetik; enpresaburu burgesak bertzetik. Lehenengoak bizia aurrera ateratzeko gogor borrokatzen zuten bitartean, bigarrenek beren aberastasuna handitzean bakarrik pentsatzen zuten, horretarako hartu behar zituzten erabakiak edo aurrera eraman behar zituzten politikak edonolakoak izanda ere.

Aurreko urteetatik lan baldintzak dexente hobetu baziren ere, oraindik lan aunitz zegoen egiteko, zeharkatu beharreko bide luze bat gelditzen zitzaion langile klaseari aintzinetik. Baina horretarako borrokatu zuten, horretarako greba bezalako ekintzak eraman zituzten aurrera, nahiz eta aunitzetan hauek nahi ez bezalako amaiera izaten zuten, zauritu eta hildako aunitzekin. Jende gehiegik galdu zuen bizia bere eskubideak aldarrikatzen zituen bitartean. Azken finean ez zuten bertze munduko zerbait eskatzen, baizik eta bizi baldintza duhin batzuk izateko eskubidea.

Nahiz eta errepublikaren etorrerarekin soldatek gora egin zuten, inflazioak ondorio txarrak izan zituen. Familiak soldata baxuekin jarraitzen zuten eta beren erosteko ahalmena behera egin zuen, beraz ondoriozta dezakegu hobekuntza honek ez zuela familiek ekonomia aunitz aldatu.

Maiz, lan kontuak politikarekin nahasi ziren. Egia da halabeharrez elkar loturik daudela bi arlo hauek, harremanetan egon behar dute, nahitaezkoa baita politikak lanaren inguruko gaiak erregulatzea. Baina aunitzetan gauzak nahasi eta atera behar ez zuten lekutik guda ttipiak ateratzen ziren, baketsua izan behar zuen ekintza bat tiroketa batekin bukatuz.

Ikusi dugun bezala CNTk paper garrantzitsua jokatu zuen garai honetan. Lanaren Konfederankuntza Nazioanalak kudeaketa garrantzitsua egin zuen langileen alde, eta hori argi ikus dezakegu Langabetuen Batzordeak beraiengan pensatu zuenean laguntza eskatzeko beren arazoaren aurrean.

Ez dakigu helburu hori zertan gelditu ote zen. Seguruenik, dokumentuaren azkeneko lerroetan azaltzen den grebara joateko nahiaren aurrean, Indar polizialek beharrezko neurriak hartu zituztela hau gerta ez zedin. Kontutan hartuz beti ere

dokumentua noizbait CNT-aren eskura iritsi izan ote zen edo ez. Nahiz eta Erakundeko partaide baten eskuetan topatu zuten, ez dakigu talde osoak honen berrri izan ote zuen edo. Gainera, aipatu dugun bezala, baliteke Dionisio Ríosek berak idatzitako dokumentua zela hau, bera kaleratu hoietako bat zenaren susmoak baititugu.

IV. BIBLIOGRAFIA

ARBELOA MURU, V. M. eta VIRTO IBÁÑEZ, J. J., "La cuestión agraria navarra (1900-1936)", *Príncipe de Viana,* XLV (1984), 117-127 eta 617-651, eta XLVI (1985), 247-294. orr.

DOMINGO, C., *La fuga*, Ediciones B, 2011.

GARCÍA OLIVER, J., *El eco de los pasos*, Ruedo ibérico, Paris, 1978; CASANOVA, J., *De la calle al frente. El anarcosindicalismo en España (1931-1939),* Crítica, Barcelona, 1997.

JIMENO ARANGUREN, R., "La represión y depuración en la Administración de Justicia: Navarra, 1936-1945. Una primera aproximación", *Jueces para la Democracia*, 79 (2014), 86-106. orr.

MAJUELO GIL, E., *Luchas de clases en Navarra (1931-1936),* Príncipe de Viana, Pamplona, 1989.

-*La II República en Navarra. Conflictividad agraria en la Ribera Tudelana (1931-1933),* Pamiela, Pamplona, 1986

-"Conflictividad social en Navarra durante la II República", *Congreso de Historia de Euskal-Herria (Bilbao, 30 de noviembre a 4 de diciembre de 1987),* Txertoa, Donostia, 1988, VI. alea, 145-161. orr.

PEIRATS, J., *Los anarquistas en la crisis política española*, Ruedo ibérico, Paris, 1971, 3 ale.

PEREZ LEDESMA, M., *Estabilidad y conflicto social. España, de los iberos al 14-D*. Nerea, Madrid, 1990, 207 eta hurrengo orriak

VEGA, E., *Entre revolució i reforma*, Pagés editors, Lleida, 2004.

VIRTO IBÁÑEZ, J. J., "La C.N.T. en Navarra", *Príncipe de Viana,* XLVI (1985), 837-859. orr.

V. ATXIKITUTAKO DOKUMENTUAK

1. Agiria

Génesis del Paro

En los primero días del mes de junio empezaron a correr rumores de la angustiosa situación económica porque atravesaba el Ayuntamiento.

Los que tuvieron plena confirmación al ser convocados los tajos Municipales por el Sr. Alcalde.

Informalidad de la Autoridades

El Sr. Garbayo nos expresa con claridad el problema: todos vimos la realidad que es similar, quedando plenamente reconocidos que sin ayuda de las Entidades u organismos más llamados a resolver el problema, no tendría para nosotros solución satisfactoria.

¿Quién era el más llamado a realizar esas cuestiones?

Todos convinimos en que debía ser el Ayuntamiento encarnado en la persona del Sr. Alcalde, así se lo hicimos ver a dicho señor, el cual se negó en redondo hacer ninguna gestión por ser parte diciéndonos que el Ayuntamiento no abandonaría del todo el problema, pues sostendría un presupuesto de 10.000 ptas. semanales equivalentes a uno 300 obreros, los demás los dejaba en manos del Sr. Gobernador con todas sus consecuencias.

Nosotros con una enorme contrariedad por haber salido el problema por donde no debió salir nunca, de no verse más amplios horizontes de trabajo en las industrias o empresas particulares.

Nos dirigimos al Gobierno Civil con la esperanza, todavía con la autoridad y prestigio que irradia en la provincia; pudiera encauzar las gestiones necesarias para proporcionarnos trabajo y tranquilidad seriamente amenazada en nuestros hogares.

Bellos proyectos, palabras no menos bellas, pero calidades ninguna. Informalidades y desdén por doquier para el proletario.

Viene el despido

El día 17 del actual mes a 10 de la mañana aparecen los capataces con las listas nombrando a los obreros que quedaban y los no nombrados quedaban despedidos. Y así se hizo, temiendo que pasar a despedidos enfrente de un cordón de guardias de asalto y seguridad.

Huérfanos de todo apoyo oficial celebramos asamblea el día 19 de las 8 de la noche con permiso del Sr. Gobernador, para ver que solución se le daba al paro y se nombró una comisión de afiliados a […] organizaciones e independientes para que hicieran las gestiones que creyeran más convenientes, con el fin de si se podía resolver el paro forzado.

Nuestras Gestiones

Damos a conocer las diligencias hechas y los datos adquiridos que son de muchas palabras pero de pocas obras, y aquí lo que verdaderamente se busca son obras, cosas que a nuestro Ayuntamiento o bien sea por la incapacidad de llevarlas a cabo o proveer de recursos que también es una forma, nos ha dejado en la calle.

(Ya nos recogerá la Diputación). Nos entrevistamos con el Secretario de la Bolsa de Trabajo para que nos informara de la cantidad de miseria que tenía que existir en un hogar para ser uno de los agraciados que trabajasen.

Ahora sacan de pretexto que han dejado a los más necesitados pero eso no es así. Hemos revisado la lista de los que han quedado trabajando, que son la mayoría casados y que se pueden denominar en 3 categorías: una de matrimonio jóvenes que tienen 1, 2

y 3 hijos, otras de matrimonios de 40 años para arriba con más o menos hijos todos o parte de ellos aptos para el trabajo y la 3ª de marido y esposa.

En los despedidos hay de más variaciones, unos que son solteros, que tienen hermanos, otros hermana y otros madre y hermanos que yendo a finalizar resulta que si en los casados trabajando hay necesitados, en los despedidos hay tanto o más. También nos manifestó el Sr. Alfaro que disponía el Ayuntamiento de 500.000 pesetas, con las cuales de momento se podía solucionar el paro.

Y por eso optamos que se debe exigir al Excmo. Ayuntamiento la readmisión porque la mayoría nos encontramos en la misma situación, y no hay derecho a hacer excepciones.

Gestiones en la Diputación

Primeramente hay que hacer constar nos quisieron obstaculizar para que pudiéramos ver al vice-presidente y salimos de esa Institución se pretextó de que se hallaban en sesión cosa incierta como se ha podido comprobar puesto que hemos sido recibidos con antelación a una sesión que tenía el Sr. Citado en otro lugar, para lo cual después de darnos algunas satisfacciones aunque no soluciones.

El Sr. Vice-presidente se ha ausentado dejándonos para que nos aclarase con más amplitud el Jefe de la Dirección de Caminos de Navarra al ingeniero Sr. Monzón. Dicho señor nos ha informado de los muchos proyectos que la Excma. Diputación de Navarra tiene aprobados. Este año no ha dado muchas explicaciones pero soluciones ninguna.

Gestiones con el Gobernador

El Sr. Gobernador de Navarra nos ha dicho que tiene en proyecto el derribo del cuartel de Caballería, obras de las Bardenas, pero esto son palabras y no hechos y se quedan siempre en trámites burocráticos.

Gestiones en la Cámara de Comercio

Nos comunica el Sr. Presidente que tenían que reunirse con el Sr. Gobernador y Fuerzas Vivas, para tratar de mejorar esta cuestión.

Como se ve en los informes que las distintas comisiones han sido recibidas por las autoridades y otras Entidades oficiales han sido nulas o ineficaces (porque hay que tener en cuenta que con las buenas palabras solamente no se puede llenar el estómago).

Nos dirigimos a vuestra organización en demanda de solidaridad moral y material, en caso de que este tan esencial problema no se solucione con suma rapidez e inteligentemente, tendremos que recurrir a medios más eficaces que los burocráticos. O sea que solicitamos vuestra ayuda al planteamiento de la Huelga General que nos parece el arma más eficaz con que contamos los trabajadores.

El Comité de Parados